260. zk.
Bigarren aroa
Irailak 1
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Leire Zubitur, Txingudiko Zerbitzuak enpresa publikoko gerentea

7. orrialdea

Kirolak
Alejandro Lopez irundarra epaile ariko da Urrezko LEB Ligan eta Emakumezkoen Ligan.

9. orrialdea

Pecozza United taldeak lehenengo diskoa argitaratu du

3 Erreportajea Kabigorri Ateneoa.
4 Caser Caser Betharrameko Kantinera.
5 Inkesta Nora joaten zara hondartzara?
6 Erreportajea Konponketak udaran
8 Kirolak Iñigo Vertiz, Ama Guadalupekoaren arraunlaria.
8 Gurasoentzat Poza-alaitasuna.
11 Haurren Leihoa Ane Abad, Erain txiki.
12 Gazteen Lanak Maddalen Zufiaurre, Txingudi Ikastola BHI.
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Itxaso Pérez.
Irungo Udaletxea Agirre ondotikan aterata.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Fermin Calbetón karrika

IUA: 29198

Garai batean, kale honek *"Travesía de las Escuelas"* izena eduki zuen. Zehazki 1883ko otsailaren 5ean jarri zioten, udal eskoletaraino iristen zen kalea zelako.

Fermin Calbetón y Blanchón Donostian jaio zen 1853ko irailaren 4an. Irunen hazi zen, eta lotura handia izan zuen hiriarekin, bizitza osoan zehar. Zuzenbidea ikasi zuen Madrilen, eta gero Kubara joan zen. Habanako Unibertsitatean Ogasun Publiko eta Zuzenbide Politiko Gonbaratuaren Katedran aritu zen. 1884an Matanzas-etik Gorteetako diputatu aukeratu zuten, lehen aldiz. 1903an biziarteko senatari izendatu zuten. Bereanduago, Vatikanoan Espainiako enbaxadore izan zen, Pio X.a Aita Santu zela, eta irakaskuntza proiektuek harrera txarra eduki ez zezaten lanean aritu zen.

1910ean, alderdi liberalaren barnean, Sustapen Ministro izendatu zuten eta bere agintaldian Santiagoko Nazioarteko Zubia eraikitzeko baimena eman zen. 1918an Romanones-ek Hazienda Ministro izendatu zuen.

Gipuzkoako probintziarentzat eta herriarentzat autonomia handiagoa lortzearren egin zuen gestioa eskertzeko, 1910ean Irungo Udalak herriko Seme Kuttun izendatu zuen. Bide batez, kale bati bere izena jarri zion Udalak. Urte hartako apirilaren 16ko Osoko Bilkuran, Fermin Calbetonek eskerrak emateko idatzitako gutuna irakurri zuen. Bere interbentzioari esker, Irungo Udalari Txit Gorena titulua eman zioten. 1897ko abenduaren 21ean gertatu zen hori.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Kulturaren topaleku eta bultzatzaile

Urte osoan zehar antolatzen ditu jarduerak Kabigorri Ateneoak

Denboran atzera egin du udan Kabigorri Ateneoak. Hormetan zintzilik dauden zuri-beltzeko argazkiek, Irungo alde zaharrak bizi izan duen bilakaera erakusten dute. José María Castilloren bildumako argazkiak dira. Urdanibia plazako lanak amaitu zirenean ere ikusgai egon ziren, martxoaren azken asteburuan. Epe laburra izan zenez, jende asko argazkiak patxadaz ikusteko gogoz gelditu zen. Kabigorrin izan du erakusketak bigarren aukera. Hori da, hain zuzen ere, Peña kalean egoitza duen elkartearen helburu nagusia. Irunen kultur jarduerak bultzatzea.

Noa Iza, Charo Ayesa eta Jon Corral, Kabigorri Ateneoaren atarian.

1997an gauzatu zen irundar multzo batek aspaldi izandako ametsa. Irunen beste kultur gune bat sortzeko asmoz, ilusio handiarekin hasi zirela adierazi du Charo Ayesa Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa elkarteko bazkide fundatzaileak. "Irungo Udalaren egitarauaz, edo ohiko zirkuituaz gain, beste aukera bat sortu nahi genuen, kultur jarduerak antolatzeko". Beste arrazoi bat ere azpimarratu du Ayesak. Garai hartan, lasai esertzeko eta hitz egiteko aukera eskaintzen zuten lokal gutxi zeuden Irunen. "Leku atsegina da etortzeko. Musikaren bolumena baxu egoten da eta lasai hitz egin daiteke. Topagune aproposa da", azaldu du Ayesak. Haur txikiak dituzten gurasoak ere joaten direla nabarmendu du Noa Izak: "Haurrentzako jolasak eta liburuak ditugu".

Laurogei ikusle har ditzakeen aretoa da Kabigorri Ateneoa. Hamabi metro koadroko eszenatokia du. Tamaina txikiko emanaldiak antolatzeko aukera ematen du. Irunen, ez dago halako beste lokalik. Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa elkarteak kudeatzen du, baina zabalik dago, norbanakoek eta elkarteek aktibitateak antola ditzaten. 90 bazkide inguru ditu elkarteak, gaur egun. Izena emateko baldintza bakarra, beste bi bazkideren gonbidapena jasotzea da. Bazkide izateak, sukaldea eta jantokia dituen Txokogorri erabiltzeko aukera ematen du. "Baina hau ez da elkarte gastronomikoa", gogoratu du Jon Corralek. Azpimarratu du bestelakoa dela motibazioa: "Bazkide batzuek, Irunen kultur jarduerak izan daitezen soilik ordaintzen dute kuota. Ez dute Txokogorri erabiltzen, eta Kabigorrira ere gutxi etortzen dira".

Aniztasuna dute ezaugarri

Bazkide aktiboenek, batzordeetan parte hartzen dute. Kudeaketa Batzorde bat dago, gestioaz arduratzen dena. "Asanblada Orokorretan erabaki handienak hartzen dira. Baina egunerokoan, batzordeak du ardura hori", azaldu du Noa Izak. Aktibitateen Batzordeak, urte osoko jarduerak antolatzen ditu. Musika emanaldiak programatzeko ardura du Jon Corralek: "Kontzertuak ematen eskaera pila bat iristen zaizkigu. Nolabaiteko filtroa pasatzen dugu, lokalaren baldintzak kontuan hartu behar baitira". Hilero erakusketak izaten dira, argazkilari, margolari edo bestelako artisten eskutik. Beste jarduera finkoak ere badira, Irunabar elkarteak antolatzen duen bertso saioa, edo komiki tailerra, besteak beste. Gainera, hitzaldiak, dokumentalen emanaldiak, liburuen aurkezpenak, antzerkiak edo poesia errezitaldiak ere egiten dituzte. "Bitxiena, zeremonia budista bat izan zen", gogoratu du Charo Ayesak.

Aniztasuna izaten da, beraz, Kabigorrin antolatzen dituzten jardueren artean. Publikoari dagokionean ere, hala izaten dela uste dute elkarteko kideek. "Jende finkoa ere badugu, baina ekitaldiaren arabera, oso jende ezberdina etortzen da", baieztatu du Ayesak. Bertso saioen kasua azpimarratu du Noa Izak: "Jende gazte asko egoten da, baina heldua ere bai. Nahasketa bitxia izaten da". Ideologikoki ere, Kabigorri leku anitza dela uste du Jon Corralek: "Batzen gaituena konpromiso soziala eta kulturala da". Euskal kulturari bultzada berezia ematea bilatzen dutela azpimarratu du Noa Izak. Salbuespena da Kabigorri Irunen.

PROGRAMATUTAKO JARDUERAK

ERAKUSKETAK:
Iraila-urria: Antxon Romero (Oleoak).
Urria-azaroa: José Vicente Cos Villegas (Argazkiak).
Azaroa-abendua: Mohamed Younssi (Margoak).

KONTZERTUAK:
Azaroa: folklore argentinarra (Bi kontzertu).

BERTSO SAIOAK:
Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean, 19:00etan.

KOMIKI TAILERRA:
Astelehenetan eta ostiraletan, 19:00etan.

AKUARELA TAILERRA:
Asteazkenetan, 19:00etan.

ANTZERKI TALDEAREN ENTSEGUAK:
Astelehenetan, 19:00etan.

Udalarekiko harremanean sakondu nahi du elkarteak

Udalarekin harremana indartu nahian ari dira Kabigorriko kideak. "MusikIrun maketa lehiaketa hartu du aurten aretoak", aipatu du Charo Ayesak. Irunen Kabigorriren ezaugarriak betetzen dituen beste aretorik ez dagoela kontuan hartuta, Udalak erabilpen handiagoa eman diezaiokeela uste du Jon Corralek: "Ez gara etsaiak. Udalak Irunen kultura eskaintza handitu nahi du, eta guk ere bai. Uste dut akordioak lor ditzakegula". Diru-laguntzen banaketan, ordea, kolaboraziorako nahia agerian gelditzen ez dela salatu du Corralek: "Uste dugu diru-laguntzetan desoreka dagoela, kontuan hartuta elkarte bakoitzak antolatzen duen jardueren kopurua eta horiek duten inpaktua". Jarduera gehiago antolatzeko, aurrekontu handiagoa behar dutela adierazi du Corralek: "Ostegunetik igandera besterik ezin dugu zabaldu Kabigorri. Aste osoan zehar irekiko bagenu, aktibitateen zerrenda luzatuko genuke".

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

HONDARRIBIKO JAIAK CASER BETHARRAMEN

AGENDA

Irailak 2: 17:30ean, Nagusilan elkarteko Juan Carlosen betiko abestiak joko dituzte

Irailak 3: 11:00etan umeen margo lehiaketa (6-14 urte), 17:30e0an sariak banatuko dituzte.

Hondarribian jaiotakoentzat, bazkaria egingo dute Ardoran.

Irailak 13: Kontxako estropadak ikusteko irteera egingo dute Miramar jauregira.

Kantinera aukeratu dute aurten ere Caser Betharramen. 102 urteko Patrocinio Murillo Vallejok jaso du bozka gehien. Patrocinio oso kontent dago Betharram 2015eko kantinera izango delako. Ahaleginak egingo ditu, dena ondo joan dadin. Abuztuaren 27an entsegu bat egin zuen Caser egoitzan zehar. Abuztuaren 29an irteera bat egin zuen Gibeleta auzoan, Mendelu konpainiarekin eta bere kantinerarekin, Amaia Goikoetxea Gonzalezekin.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

INKESTA

Nora joaten zara hondartzara, Hondarribira edo Hendaiara?

Eider Barbe Esnaola

Irundarra naiz eta normalean Hondarribiko hondartzara joaten naiz. Hendaiakoa ere gustuko dut eta Donostiakoa gehiago gustatzen zait, baina Hondarribikoa gertuago dago.

Beti lagunekin joaten naiz, eta autobusez mugitzen naiz hara joateko.

Alberto Salinas Cordón

Hondarribiko hondartzara joaten naiz batez ere, gazteak hara joaten direlako. Nire ustez, Hendaiako hondartza hobea da, baina gazteak Hondarribira joaten direnez, hara joaten gara.

Lagun guztiok motoak dauzkagu, eta horrela joaten gara hondartzara beti.

Emilio Galdón

Normalean mendira joaten naiz, baina joatekotan, Hondarribikoa nahiago dut. Kotxea erabiltzen dut naiz eta aparkalekuan bertan uzten dut.

Baina, esan bezala, mendira joatea nahiago dut. Aiako Harrira askotan joaten naiz, oso mendi polita iruditzen zait.

Jaione Zelaieta

Irunera bizitzera etorri nintzen orain del 32 urte eta normalean Hondarribiko hondartzara joaten naiz. Alde batetik, hurbilago dagoelako, eta bestetik, Hendaiako hondartza beti beteta egoten dela iruditzen zaidalako.

Lurraldebus txartela daukat, eta autobusez joatea erosoa da niretzat. Batzuetan kotxez joaten naiz, baina gutxitan izaten da hori.

“Helburu nagusia da, ahal den neurrian, hiriko kirol instalazioen egoerarik onena bermatzea”
Cristina Laborda, Irungo Udaleko Obretako ordezkaria

“Lehiaketak edo entrenamenduak ikustera hurbiltzen direnentzat ere onuragarriak izango dira hobekuntzak”
Pedro Alegre, Irungo Udaleko Kiroletako ordezkaria

OBRA BAKOITZAREN KOSTUA:

Stadium Galeko harmailetako estalkia: 150.302 euro.
Arretxe-Ugaldeko zelaia eta komuna: 68.033 euro.
Ontziralekua: 105.934 euro.
Plaiaundiko pertika jauziko zuzena: 5.989 euro.

Konponketak, udaran

Kirol azpiegituretan lanean aritu da Irungo Udaleko Bide Publiko eta Obra departamentua

Kirol azpiegitura guztiek behar izaten dituzte mantentze lanak. Denborarekin, erabileraren ondorioz, hondatu egiten dira. Saihestu ezineko prozesua da hori. Kirolariak izaten dira lehenak degradazioa nabaritzen. Baina konponketak ere, beste inork baino gehiago eskertzen dituzte. Stadium Galen, Arretxe-Ugalden, Plaiaundin eta Santiagotarrak elkartean, berrikuntza nabariak topatuko dituzte oporretatik bueltan. Konponketak egiteko baliatu baitu udara Irungo Udalak.

Hobekuntzak eta mantentze lanak egin ditu Irungo Udaleko Bide Publiko eta Obra Arloak azken asteotan. Kirol Arloarekin eta hiriko elkarteekin elkarlanean aritu da, kirol azpiegituretan egin beharreko lanak aurrera eramateko. “Kirol kluben ohiko jarduerak behera egiten du udan. Horregatik, lan batzuk egiteko aprobetxatzen dugu. Helburu nagusia da, ahal den neurrian, hiriko kirol instalazioen egoerarik onena bermatzea”, azaldu du Cristina Laborda Obretako ordezkariak. Lau instalazio konpondu dituzte aurten. Edo konponduko dituzte, batzuetan lanean ari baitira oraindik.

Stadium Gal futbol zelaian, harmailetako estalkiak margotzen ari dira. Real Unionen partidak jarraitzera hurbildu ohi diren zaleek aspaldi ikusiko zuten egitura metaliko osoa herdoilduta zegoela. 1995ean hasi ziren eraikitzen egungo Stadium Gal. Hogei urteren ondoren, behar ditu hobekuntzak. Arretxe-Ugaldeko futbol zelaia berriagoa da, baina hasi da denboraren igarotzea nabaritzen. Alde batetik, ateen aurreko belar artifiziala ordezkatu dute, higadura gehien jasaten duen eremua baita. Era berean, zelaiko izkinetako batean ere esku hartu dute, hondoratutako zelai zati batean putzuak sortzen baitziren. Gainera, komun publikoak jarri dituzte, eraikin txiki batean.

Santiagotarrak Kirol Elkartearen egoitzaren aurrean dagoen ontziralekuan ere aritu dira. Hasteko, pantalanaren azpiko lokatza kendu dute. Ondoren, pantalana konpondu eta margotuko dute, eta pasabide berriak jarriko dituzte. Denborarekin pilatutako lokatzaren ondorioz, itsas beheretan pantalanak behea jotzen zuen. Hori dela eta, pasabideen loturak eta pantalanak gehiegizko tentsioa jasaten zuten. Plaiaundiko kirol instalazioan, atletismo pistako pertika jauziko zuzena birmoldatu behar izan dute. Zoladura aldatu dute, egoera txarrean zegoela eta. Pertika jauziko espezialistek eroso entrenatu ahal izango dute orain. Pedro Alegre Kiroletako ordezkariak uste du hobekuntzak agerikoak izango direla: “Kirol instalazioetako erabiltzaile guztientzat izango dira onuragarriak, bai kirol gogokoena praktikatzera joaten direnentzat, baita lehiaketa edo entrenamendu bat ikustera hurbiltzen diren horientzat ere”. Lan guztien aurrrekontua 5.989,50 eurokoa izan da.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

“Edukiontzi marroia erabiltzeko zerrendan izena eman duten familien %25 ari da parte hartzen”

LEIRE ZUBITUR

2014ko irailaren lehenean hartu zuen Leire Zubiturrek Txingudiko Zerbitzuak enpresa publikoko gerente kargua. Miguel Ángel Muñagorri ordezkatu zuen, 26 urteren ondoren erretiroa hartu baitzuen. Hernanin jaiotako ingeniaria da Zubitur. Lehenago, azpiegitura handien eraikuntzan lan egin izan du, Urumeako Autobidean, edo Euskal Y-an, besteak beste. Egokitzapen prozesua gainditua, eroso ari da jada lanpostu berrian. Prest dago enpresaren ardura diren gai nagusien inguruan hitz egiteko. Uraren ziklo integrala, hondakinen gestioa eta bide garbiketa kudeatzen ditu Txinzerrek, Irunen eta Hondarribin.

Urte bete daramazu karguan. Zein balorazio egingo zenuke?

Niretzat erronka handia zen Txinzerreko gerente izatea. Miguel Ángel Muñagorrik lan ona egin zuen aurreko hogeita sei urteetan. Inbertsio handiak egin zituen eskualdearentzat beharrezkoak ziren azpiegituretan. Lan horri jarraipena ematea zen nire asmoa. Urtearen lehen erdian erakundeekin harremanetan hasi nintzen. Gainerakoan, eguneroko kudeaketan eta egin beharreko hobekuntzetan lan egiten aritu naiz. Urtearen balorazio orokorra oso positiboa da.

> “Momentuko irakurketa zehatzak egin ditzakegu orain”

Urari dagokionez, teleirakurketaren instalazioa da egiten ari zareten inbertsiorik handiena. Zer da eta zein aukera eskaintzen du?

Lehen, kontadoreak irakurtzeko, sistema analogikoa erabiltzen zen. Sistema horrekin, langile batek etxez-etxe joan behar izaten zuen, datuak biltzera. Etxe guztietatik pasatzea ezinezkoa zenez, gutxi gorabeherako irakurketak egiten ziren. Teleirakurketak horrekin amaitu du. Momentuko irakurketa zehatzak egin ditzakegu orain. Gainera, ihesak edo aberiak antzemateko aukera ematen digu. Erabiltzaileak ere baditu abantailak: kontsumoa interneten kontsulta daiteke, eta kopuru bat gaindituz gero abisatzeko alarmak jar daitezke. Irunen 2013an amaitu genuen teleirakurketa martxan jartzen. Hondarribin aurten bukatuko dugu.

> “Kontzientziazio kanpainak prozesu motelak dira”

Zaborrari dagokionez, Txingudin bosgarren edukiontziaren alde egin duzue. Zein emaitza eman du orain arte?

15.400 familia daude edukiontzi marroia erabiltzeko izena emanda. Hau da, eskualdeko biztanleriaren erdia, gutxi gorabehera. 2014 urteko datuen arabera, 1.157 tona materia organiko jaso genuen. Horrek esan nahi du izena eman duten familien %25 bakarrik ari dela parte hartzen. Arazo horri aurre egiteko neurriak prestatzen ari gara. Horietako bat, edukiontzia irekitzeko txartel elektronikoa izango da. Horri esker jakingo dugu nork erabiltzen duen edukiontzia eta nork ez. Erabilera minimo bat ezarri nahi dugu. Aurreikuspenen arabera, aurten 1.500 tona jasoko ditugu. %41eko birziklatze tasa dugu. Beraz, hazten ari gara, baina askoz gehiago egin behar genuke.

Kontzientziazio kanpainak egin dituzue. Nabari da horien inpaktua datuetan?

Kanpainak oso prozesu motelak dira. Pentsaezina da kontzientziazio kanpaina baten emaitzak egun batetik bestera agerian gelditzea. Arrakasta gehien izan duena Merka2dasoa da. Materialak berrerabiltzeko aukera ematen du. Urtean hiru aldiz antolatzen dugu, eta edizio bakoitzaren ondoren, 4 tona hondakin gutxiago eraman ohi dugu zabortegira. Beraz, esan daiteke eraginkorra dela. Bestalde, irailean birziklatzeari buruzko informazio liburuxkak banatuko ditugu herritarren artean. Betikoa da, baina beharrezkoa da noizean behin gogoratzea. Urrian konpostari buruzko tailerrak egingo ditugu eskoletan.

> “Egin dugun guztiak du bere azalpen teknikoa”

Txikitatik landu behar da al ingurumenarekiko konpromisoa?

Ingurumen hezkuntza txikitatik lantzea ezinbestekoa da. Haurrek birziklatzearen edo ura zentzuzko neurrian erabiltzearen beharra ulertzea gakoa da, gero jarrera hori naturaltasunez mantendu dezaten. Guk hiru tailer antolatzen ditugu: uraren zikloarena, hondakinen kudeaketarena eta teknologiarena. Hirurak lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako edo helduen hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta daude.

Jaizkibel Mendia Babestu Dezagun plataformak salatu du Jaizkibelgo zundaketak justifikatzeko datuak faltsutu dituzuela. Zein da zure iritzia?

Ez dakit zertan oinarritu diren halakoak esateko. Datuak hemen daude, ni prest nago edozein herritarren zalantzei erantzuteko. Egin dugun guztiak du bere azalpen teknikoa. Araudian eta txostenetan oinarrituta hartzen ditugu erabakiak. Edonola ere, ni gerente naizenetik ez dira bulegora etorri, eta ez dut haiekin kontakturik izan. Eskutitzen bat edo beste trukatu dugu, besterik ez.

Zein erronka edo helburu izango du Txinzerrek hastera doan ikasturterako?

Urari dagokionez, zaharkitutako hodiak eta biltegiak berriztatu eta ihesak murriztu nahi ditugu. Hondakinei dagokienez, birziklatze tasa handitzea da helburua. Horretarako, Ingurugiro Hezkuntza eta Kontzientziazioa landuko ditugu. Bestalde, inbertsioen txosten berria prestatzen ari gara, 2015-2025 hamarraldirako.

“Talde trinkoa osatu dugu”

IÑIGO VERTIZ

Hondarribia Arraun Elkartearen historiako pasarte gogoangarria izango da 2015 denboraldia. San Miguel Ligan jaun eta jabe izan da Ama Guadalupekoa. Arraunlari gazteek aire freskoa eman diote traineruari. Baina beteranoen lana ere ezinbestekoa da. 35 urterekin, Hondarribiko ontzian esperientzia gehien duen arraunlarietako bat da Iñigo Vertiz. Historian zehar gehiago izan badira ere, gaur egun irundar bakarra da Ama Guadalupekoan.

Harrigarria da aurten lortzen ari zaretena.
Hala da. Bazirudien aurreko urtekoa hobetzea ezinezkoa izango zela. Oso urte ona izan zen. Liga irabazi genuen, eta bigarren izan ginen Kontxan. Joan den urteko emaitzak hobetzen ari gara aurten, eta Kontxa ona egiten baldin badugu, urte bikaina izango da.

Jardunaldi guztietan egiten ditu aldaketak Mikel Orbañanos entrenatzaileak. Baina ez da aldea nabaritzen. Nola da posible?
Oso talde trinkoa osatu dugu, homogeneoa. Pareko maila dugu hemeretzi arraunlariok. Horregatik ez da nabaritzen, estropada batetik bestera bospasei aldaketa egiten ditugun arren. Egia da aurreko urteetan eskifaia titularra finkoagoa zela. Hori, kanpoan gelditzen denarentzat, gogorra da, denok entrenatzen dugulako berdin. Aurten, aldiz, denok parte hartzen dugu, eta denok irabazten ditugu banderak.

Arraunlari gazteak sartzen ari dira, eta indartsu datoz gainera. Urtetako lanaren ondorioa da?
Bai, aurten Hondarribia B ontziak egin duen lana ikustea besterik ez dago. Zoriontzekoa da. Hondarribian gero eta gazte gehiago animatzen dira arraunean aritzera. Gainera, lehen traineruak uda ona egiten duenean, kopuruak gora egiten du nabarmen.

> “Ideia da luze arraun egitea, pazientziarekin eta ito gabe”

Ama Guadalupekoaz hitz egiterakoan, barneratuta duzuen arraunketa mota aipatzen da beti. Zer lortu nahi duzue eta nola lantzen duzue?
Urteen poderioz lortutako zerbait da. Mikel Orbañanos entrenatzaile hasi zenetik, arraunketa mota hori ezarriz joan da. Ideia da luze arraun egitea, pazientziarekin eta ito gabe. Ziklo batean sartzen gara, eta horri eusten diogu. Arraun elkarteko gazteak ere estilo hori barneratzen ari dira, lehen trainerura iristerakoan prest egon daitezen.

Kanpotik garaipenak eta ospakizunak ikusten dira. Baina zer nolako lana dago atzean, egunerokoan?
Urte kaskarragoak egin ditugunean ere, lana berdina izan da. Zailagoa, estropadetara joan eta zazpigarren edo zortzigarren geratuta, astea gogorragoa egiten baita. Hamaika hilabeteko lana da, astean sei edo zazpi aldiz entrenatzen dugu. Garaipenik gabe, udara luzea eta gogorra izaten da.

Santiagotarrak K.E.n hasi zinen arraunean. Nolatan?
Nik txikitan futbolean jokatzen nuen, baina ez nintzen oso trebea. Santiagotarretan lehengusina nuenez, udako ikastaro batean probatu nuen arrauna. Aulki mugikorrean hasi nintzen, eta gustuko dut oraindik ere. Dena den, garai hartan, Santiagotarren trainerua zeukan, beraz, nire helburua trainerura ailegatzea zen. Asko ikasi nuen Santiagon, arraunaz eta giza baloreez. Oso eskertuta nago.

Nola iritsi zinen Hondarribia Arraun Elkartera?
2002an zortzi mutil gelditu ginen senior mailan. Trainerua ateratzeko aukerarik ez zegoenez, donostiarrekin elkartu ginen. Donostia Arraun-Santiagotarrak taldea osatu genuen, eta Kontxan parte hartu genuen. 2003.urtea ere Irunen egin nuen, baina jendeak jarraitzeko asmorik ez zuela ikusita, Hondarribira joatea erabaki nuen. Jon Parra arraunlaria lehengusua nuen, eta Joseba Amunarriz patroia eskolako nire gelakide izandakoa da. Gainera, Gorka anaiarekin iritsi nintzen.

Ba al dago Hondarribia-Irun lehiarik?
Batzuetan adarra jotzen didate irundarra naizelako, baina ondo hartzen dut. Nik Hondarribian ikasi nuen, beraz, harreman estua izan dut beti bizilagunekin.

Hamabi denboraldi egin dituzu Hondarribian. Tartean, elkarteak azken hamarkadetan izan dituen urterik onenak harrapatu dituzu.
Nik argi daukat garrantzitsuena gozatzea dela. Santiagotarrak-en ere hala izan zen. Hondarribian, disfrutatzeaz gain, banderak, txapelketak eta ligak irabazi ditut. Zortea izan dut, azken urteotan oso talde onak izan dituelako Hondarribiak.

Kontxa dugu gainean. Faborito izango zarete.
Donostiako estropada oso berezia da. Hasteko sailkatu beharra dago. Tramitea da, baina gainditu beharra dago. Urduritasun asko izaten da, akats bat eginez gero, kanpoan gera zaitezkeelako. Aurten sasoian iritsiko gara, eta ilusio handia daukagu. Baina aurkariak ere oso onak dira, zaila izango da.

Noiz arte ikusten duzu zure burua arraunean aritzeko gai?
Udara nahiko saturatuta bukatzen dut beti. Nik bakarrik ez, familiak esfortzu handia egiten baitu. Lanarekin uztartzen dut arrauna. Beraz, familiarekin egoteko denbora gutxi izaten dut. Hala ere, denboraldia bukatuta, aste batzuk pasatzen direnean, gogoa sentitzen dut berriro. Arlo fisikoan ondo nabil oraingoz, ilusioa ere badut, baina familiarekin adostu beharko dut zer egin.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

ALEJANDRO LÓPEZ

“Partidaren kontrolari eustea da zailena”

Lehen sosak lortzeko hasi zen Alejandro López irundarra saskibaloi partidetan epaile lana egiten. Gustatu zitzaiola esan daiteke, bederatzi urte egin baititu kantxetan. Mailaz-maila igotzen joatea lortu du, eta aurten azpimarratzeko moduko jauzia egin du. Hogeita sei urterekin, Urrezko LEB Ligan (gizonezkoen bigarren maila) eta Emakumezkoen Ligan (emakumezkoen maila nagusia) ariko da. Epaile gipuzkoarren artean izan duen aurrekaria Ruben Sánchez da. Gaur egun, ACB ligan dabil (gizonezkoen maila nagusia).

Saskibaloi jokalari izan al zinen epaile baino lehenago?
Bai, hamasei-hamazazpi urte nituela hasi nintzen jokatzen, junior mailan. Erroibiden aritu nintzen,. Gogoratzen dut klubetik maiz etortzen zirela epaileak behar zituztela esaten. Horrela egin nuen lehen ikastaroa.

“Partida bakoitzaren ondoren, egindako lana baloratzen duen txostena ematen digute”

Zerk eraman zintuen epaile izatera?
Egia esan, beste gazte asko bezala, diruagatik hasi nintzen. Ikasleentzat, diru pixka bat biltzeko modu erraza da. Hortik aurrera, benetan gustuko duenak bakarrik jarraitzen du aurrera.

Zein ezaugarri behar du saskibaloi epaileak?
Langilea behar du izan. Hori hasteko. Jende askok uste du pistara ateratzea eta txilibitua jotzea besterik ez dela. Itzalean, baina, lan ikaragarria dago. Araudia ikasi eta birpasatu behar izaten da. Partida bakoitzaren ondoren, egindako lana baloratzen duen txostena ematen digute. Neurketa osoa ikusi behar izaten dugu bideoan, eta txostenean planteatutako gaiei erantzun. Bestalde, konfiantza ere oso garrantzitsua da.

Arlo fisikoari dagokionez?
Sasoian egotea gutxienekoa da. Mailak gora egiten duen neurrian, exijentzia handiagoa da. Epaileak beti kantxako leku egokian egon behar du, gertatzen ari dena ondo ikusi ahal izateko. Bestela nekez asmatuko du hartutako erabakietan. Horretarako, prestakuntza fisikoa beharrezkoa da, jakina. Ni gimnasiora joaten naiz urte osoan zehar, eta denboraldia hurbiltzen denean, korrika egiten hasten naiz.

Gaztetxoen partidetan hasiko zinen.
Infantilen eta kadeteen partidetan hasi nintzen, bai. Gezurra badirudi ere, batzuetan zailagoa izaten da maila tekniko handirik ez duten haurren partida batean epaile izatea. Jokatzen utzi behar diezu, beraz, ezin duzu dena zigortu.

“Jokalari asko ni baino helduagoak dira”

Helburua bete al duzu LEBera eta Emakumezkoen Ligara iritsita?
Duela hiru urte EBA ligara igo nintzenean, asebeteta sentitu nintzen. Baina ni lehiakorra naiz, eta gora egiten ahalegindu naiz. Orain pozik nagoen arren, ez dut mugarik jartzen. Nire ametsa ACBko eta nazioarteko epaile izatea da. Momentuz, aurten mailari eusten ahaleginduko naiz.

Alde handia al dago emakumezkoen eta gizonezkoen saskibaloiaren artean?
Alde nagusia fisikoa da. Alturea, abiadura, jauzia etab. Baina arlo teknikoan, Emakumeen Ligako neskak hobeak izaten dira askotan. Saskibaloi ezberdinak dira, niri biak gustatzen zaizkit.

Zein jokaldi edo egoera izaten da zailena epailearentzat?
Partidaren kontrolari eustea da zailena. Adibidez, huts egiten duzunean, eta jokalari batek zure aurka egiten duenean. Egoera horiek kudeatzea da okerrena. Zeharo asaldatuta dagoen jokalari bat kanporatu gabe lasaitzea zaila da. Kontuan hartu behar da jokalari asko ni baino helduagoak direla. Baina tira, saskibaloian bi epaile daude beti, eta bien artean ateratzen gara aurrera.

Saskibaloian epaile aritzea ogibide izan daiteke?
Nire mailan behintzat ez. Orain arte lanean ibili naiz, eta aurten master bat ikasiko dut. Diru pixka bat ateratzen dut, baina ez da bizitzeko nahikoa.

POZA–ALAITASUNA, emozio motibagarria, bizitzan zoriontsu sentitzeko beharrezkoa

Emozioaz eta adimen emozionalez ari garenean, maiz emozio desatseginak nola erregulatu ditugun gogoan izaten dugu, eta emozio atseginak alde batean geratzen dira. Oraingoan POZAZ arituko gara. Azter dezagun noiz sentitzen dugun poza eta zein den bere funtzioa:

- POZA norberarentzat atseginak diren gertaeretan edo nahi genuen helburua lortzen dugunean sortzen den emozioa da.

- Emozio atsegin eta motibatzailea da: Emozio atsegina denez, berriro sentitzen ahalegintzen gara, gustuko duguna errepikatzeko joaera baitugu.

Bestalde, pertsona bakoitza ezberdina denez, gertaera edo helburu berdinek ez gaituzte denok alaitzen. Poza baloreekin lotuta dago eta gure bizimoduak eragin handia du alaitasuna sentitzeko ahalmenean.

Haurren eta helduen pozak ez dira beti berdinak izaten, baina haurren poztasunerako bide anitz helduen eskutik ikasitakoak dira. Adibidez: gurasoek mendia maite badute eta elkarrekin naturaz gozatzen badute, haurrek ere hori ikasiko dute.

Helduok lana egiten dugu, eta gurasook, lanaz gain, heziketaren ardura dugu. Beraz, gure energia gehienak horretara bideratzen ditugunez, denbora behar izaten dugu. Pozten gaituzten gauzak bizi behar izaten ditugu, berriro gure eginkizunei aurre egin ahal izateko: kirola egin, lagunekin kaferen edo edariren bat hartu, paseatzera joan, eguzkipean irakurri … Helduok ere gure unetxoak behar ditugu ALAI eta POZIK sentitzeko. Pozik gaudenean, guretzako momentuak hartu ditugunean, gure ingurukoekin (haur zein heldu) harremanak izateko gogoa izaten dugu eta harreman pozgarri eta atseginak sortzen ditugu. Gure haurrek pozik behar gaituzte, gu ongi gaudenean harreman positibo eta aberatsak sortzen ditugu, kalitatezko harremanak.

Haurrei ere gertatzen zaie; heldu baten agindupean aritzen dira eskolan edo ekintza gidatuetan, eta gero beraientzako denbora behar izaten dute. Haurrek beraien garapenean funtsezkoa den eta POZA bideratzen duen izugarrizko tresna zoragarria dute: JOLASA. Jolasak adin bakoitzean ezaugarri batzuk ditu, baina guztiz beharrezkoa da haurrak bizitzen dituen kezka edo tentsioak askatzeko eta lagunekin elkarbizitzen ikasteko. Eta egin dezagun gogoetatxo bat:

Gure haurrek ba al dute denborarik lasai eta askatasunez beste haurrekin jolasteko?

Gaur egun, denen ahotan dago haurrak kalean bakarrik egotea oso arriskutsua dela. Neurri handi batean egia da, baina horregatik kendu behar al diegu aske jolasteko denbora? Partikularrak, kirolak eta eskolaz kanpoko ekintzak oso garrantzitsuak dira, baina helduaren agindupean egon gabe, aske jolastea guztiz beharrezkoa da, ezta? Kasu horietan ere gure presentzia funtsezkoa da. Aske jolastuko dira baina behar bagaituzte gurasoa eskuragarri egongo da. Horrek konfiantzan hezten laguntzen die. Gu gara babeslekua eta aske dabiltzala zerbait behar dutenean, eskatzeko aukera izango dute.

Haurrek eta helduok elkarrekin gauzak egiten gozatzen dugu, eta interes komunak bilatzea ona da elkarrekin gozatzen ikasteko. Zer da denok pozten gaituena? Patinatzera joango gara, futbolean jokatuko dugu, gero esku pilotan, zinemara joango gara, lagunen etxera… Elkarbiziz, elkarrekin konpartituz gozatu egiten dugu. Denoi gustatzen zaizkigun gauzak egitea funtsezkoa da familian leku bat izan eta zoriontsu sentitzeko. Haurrak handitzen diren heinean, gurekin gutxiago egon nahi izaten dute. Lagunek garrantzi handia hartzen dute. Baina orduan ere, elkarrekin gozatzeko ekintzak programatu ditzakegu.

Emozio desatseginekin bizitzen ikasi behar dugu, ahal dugun neurrian hauek erregulatzen ikasi eta gure bizitzan integratu. Baina emozio atseginak bideratu ditzakegu, egunero poztu edo ALAITZEN gaituen zerbait egin. Egunean zehar benetan sentitu eta gozatzeko sentimendua barneratzen badugu, zoriontasunaren bidean egon gaitezke. Bizitzan positibo bizitzea emozio atseginekin konektatzea da.

Udan alaitasuna bizitzea errazagoa bada ere, saia gaitezen berriro haurrak eskolan hasten direnean ere alaitasuna bideratzen. Egunean lasai egoteko tarte bat hartu eta programatu zer egin gure burua zaintzeko eta gure ingurukoekin poztasuna konpartitzeko.

Kuttun aholkularitza psikopedagogikoa.

MAPI URRESTI ORTIZ

Erain txiki. Ane Abad. 5 urte

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, serbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Txingudi Ikastola BHI. 4. maila. Maddalen Zufiaurre Seijo

Algaraka Emandako argazkiari erreparatu eta istorio bat sortu behar dute ikasleek, umore puntu batez.

EZ NAIZ BAKARRA

Beherapenak, beherapenak! Iritsi dira eta horrek, arropan dirua kontrolik gabe xahutzea dakar. Zorionez, aurten, nik ez dut sosik ere xahutuko, ez horixe!

Herenegun, oredagailuaren aurrean lanean ari nintzen bitartean, irratian eman zuten ondorengo iragarkia: Bostoneko hainbat dendatan, udazkeneko eta neguko sasoiko salmentak ez dira onak izan eta hori dela eta, hurrengo astean denda horietara joanez gero, arropa dohainik eskuratu dezakegu. Baina, zentimo bat behar du erosleak. Ideia bikaina, ezin hobea! Honen aldean, Einsteinen eta beste zientzialarien ideiek ez zuten deus balio. “Jendea ez da ausartuko, lotsa gehiegi dago munduan... baina nik lotsaren zati handi bat aspaldi galdu nuen, eta hantxe egongo naiz goitik behera janzteko asmoz” pentsatu nuen.

Ostegun goiza da eta ohikoa den bezala, goizeko 7:30ak aldera jaiki naiz lanera joateko. Betiko moduan, gosaldu ondoren, dutxatu eta kalera irten naiz, baina oraingoan... arroparik gabe! Sotora iritsi eta atea irekitzerakoan, hainbeste maite dudan goizeko haize freskoa sumatu dut; gaur, ordea, pixka bat gehiago.

Bulegoan 10etarako egon behar dut eta orduebete eskas dut arropa eskainiko didaten denda guztietara joateko. Lehenengo, barruko arropa duen batera joan naiz. Men´s Secret izeneko dendara. Nire ustearen kontra, dendara sartzeko ilara zegoen eta denak berdin geunden, biluzik... Txanda iritsi zaidanean, dendariak maniki batek gainean zituen galtzontzilo arrosak eman dizkit. Urdin ilunak eskatu dizkiot; dendariak, buruarekin alde batera eta bestera eginez, besterik ez dutela esan dit. Ordulariari begiratu bat eman eta dagoeneko 15 minutu pasa direla konturatu naiz. Dendatik ahalik eta azkarren atera, eta Mango-ra joan naiz. Buff, nork esango zuen jendeak nire modura, lotsa galdua izango zuela? Beheko solairuan, txano eta zapata batzuk hartzeko aukera izan dut eta bigarren solairura lasterka igo naiz, txaketa eta alkandorak hartzeko asmoz.

Larri, baina azkenean, geltokira iritsi naiz. Itxuroso, dotore, txukun... Moda modako txano, alkandora, txaketa, galtzontzilo, gal... GALTZAK! Galtzak hartzea ahaztu zait! Gainera galtzontzilo itsusi hauek erakustea ere! Ene, zer egin dezaket? Trena berehalaxe dator.

Trena hor datorrela ikusirik, eta lotsa atzean utzi nuela pentsaturik, aurpegiko tenperatura, 36,5 gradutik, 100 gradura igo da. Masailak, gero eta beroago dituadala sumatzen hasi naiz... Trena gelditu eta igo ahal izateko ateak irekitzerakoan... SORPRESA! Hara non, trenaren barruan eserita edo zutik deuden exekutibo askok ez dute galtzarik. Igo eta interesak piztuta, horietako batengana hurbildu eta prakarik gainean zergatik ez daraman galdetu diot. Besteak, aldiz, ondorengoa erantzun dit;

“Hara bestea! Zergatik? Zer uste duzu? Moda hau jarraituko duen bakarra zu izango zarela ala?”

ZERTARAKO BALIO DUTE FACEBOOK-EKO HASHTAG-EK?

Twitterren oso erabilgarriak dira hashtag-ak, eduki berriak aurkitzeko eta antolatzeko. Facebook-en, berriz, ez dute erabilgarritasunik.

Hori baieztatu du behintzat EdgeRank-ek, Facebook-i buruzko analisien hornitzaile batek. Enpresek hashtag-engandik lor dezaketen etekina ikertu du.

Halako etiketak post-etan gehitzeak zer nolako eragina duen ikertu du EdgeRank-ek. Erabiltzaileen elkarreragina edo edukiaren biraltasuna handitzen ote duen, sare sozialean zehar azkarrago zabaldu arazten duen edo ez.

Txostenaren ondorioa argia da: hashtag-ek ez dute ezertarako balio. 500 enpresak baino gehiagok Facebook-eko kontu korporatiboetan egindako 35.000 post aztertu ditu EdgeRank-ek ondorio hori ateratzeko.

Erabiltzaile askorentzat albiste ona da, “zarata” moduan ikusten baitituzte hashtag-ak, alferreko edukia gehitzen baitiote post-ari. Irismena murrizten du horrek.

Edge Rank-ek uste du enpresek ez dakitela Facebook-eko hashtag-ak erabiltzen, promoziorako hashtag-ak sortzen dituztelako. Facebook sare sozialaren funtzionaltasuna ez da Twitter-enaren berdina. Facebook-en erabiltzaileek ez dituzte antzeko edukiak bilatzen. Beraz, hashtag-ek irakurketa oztopatu besterik ez dute egiten.

2013an zehar beste sare sozial askok Twitterren eredua kopiatu zuten, hashtag-ak erabiltzeko aukera eskainiz. Facebook-ek ekainean egin zuen, baina Flickr-ek edo Instagram-ek lehenago gehitu zituzten hashtag-ak.

Egilea: MANUEL MORENO, kazetaria.

Zirikatzailea, deserosoa, baina freskoa

Azken bi urteotan sortutako abesti probokatzaileak bildu ditu Pecozza United taldeak lehen diskoan

Homonimoa da Pecozza United taldearen lehen diskoa. Ez du esan nahi izen bereko lana denik. Horixe da Irungo hirukoteak jarri dion izenburua. "Txiste gisa baino, tranpa moduan pentsatu genuen. Eta bai, kazetariren bati ziria sartu diogu", adierazi du Xabi Burgaña bateria jotzaileak. Umorea ezinbesteko osagaia da Pecozzaren abestietan. Bestea, taldearen inguruko giroaren kritika zorrotza eta ausarta. Arlo musikalean, oinarri-oinarrizkoa da. Baxurik ere ez du. Hala ere, musika bigarren mailakoa da. Abestien hitzek dute garrantzia Pecozza United taldearentzat.

Pecozza United taldeko Xabi Burgaña, Beñat Muguruza eta Lander Bidaurre.

Ekimen faltak atzeratu omen zuen Pecozza United taldearen sorrera. Ideia "aspaldi" bururatu zitzaiela baieztatu du Beñat Muguruza gitarra jotzaileak. Taldearen historiaurrea duela zortzi urte inguru kokatu daiteke, Muguruza eta Lander Bidaurre abeslaria Gasteizen ikasle izan ziren garaian. Taldearen izenaren jatorria azaldu du Bidaurrek: "Futbol txapelketa baterako izena eman genuen, Ermuako lagun batzuekin. Haiek asmatu zuten izena, pekotza behiaren gorotza omen baita bizkaieraz. Guri grazia ikaragarria egin zigun". Noizbait, musika talde bat eratuz gero, izen hura jarriko ziotela erabaki zuten. Sei bat urte beranduago, Bilbon kontzertu bat ikusten ari zirela, Muguruzak albistea eman zion lagunari: "Taldea sortuko dugu!". Ez zuen gehiegitan errepikatu behar izan.

Argi zeukaten abestietan erabili beharreko tonua. Gaiak eta ideiak ere bazituzten, baina arratsalde batean abestiak idazteko geratzeak "lotsa" ematen ziela aipatu du Beñat Muguruzak. Horregatik, parranden ondoren, ordu txikitan idazten hasi ziren. Inauterietan idatzi zituzten lehen abestiak, Miguel taberna zaharraren atzeko aldean. Aurrerantzean, parrandetan bakarrik geratzeko ahalegina egiten zuten, tabernariari papera eta boligrafoa eskatzeko. "Sunbillako barran ere sortu izan dira abestiak", gogoratu du Muguruzak. Entseatzeko, Lakaxita Gaztetxean elkartzen hasi ziren. Xabi Burgaña lagunari hots egin zioten orduan, taldea borobiltzeko. Bateriarekin, gitarrarekin eta ahotsarekin, aski zuen Pecozza United-ek. Baxua sartzeari zergatik uko egin zioten azaldu du Lander Bidaurrek: "Pecozza hutsaren hurrengoa da hitzak ulertzen ez baldin badira. Gaztetxe edo tabernetan jotzeko, pentsatu genuen baxuaren soinuak ulermenari kalte egingo ziola". Dena den, diskoan baxua grabatu dute, abestien soinua hobetzeko.

Umore probokatzailea

Zer dute ba Pecozza United-en hitzek, taldekideek hainbesteko garrantzia emateko? "Gure inguruari barre egiten diogu. Kontuan hartuta, noski, gu ere inguru horren parte garela", adierazi du Beñat Muguruzak. Euskal panorama politikoko eta kulturaleko pertsonaiak zirikatzen dituzte, esaterako: Arnaldo Otegi, Bilduren Gipuzkoako Foru Aldundia, Carlos Urquijo, Orreaga Iritzi Taldea, Bernardo Atxaga edo Xabier Silveira. Umorez zipriztinduta lantzen dituzte gaiak, baina ikuspegi kritiko batetik. Abesti horietako batzuk gaztetxeetan jotzeak arriskua izan dezake. Orain arte, ordea, ez dute inolako arazorik izan. "Hasieran beldur pixka bat geneukan. Pentsatzen genuen, abesti batzuk kantatuta, jendea gainera botako zitzaigula", onartu du Xabi Burgañak. Ikusleen erantzuna, aldiz, nahiko "epela" izan dela esan du Beñat Muguruzak: "Jende batek onartu digu gauza batzuekin ez dagoela ados. Baina orokorrean, zoriondu egin gaituzte, abesti originalak egin ditugulako".

Talde askoren originaltasun falta salatu du, hain zuzen ere, Muguruzak: "Taldeak ezker abertzalearekin posizionatzen dira, publiko jakin baten onarpena jasotzeko eta zirkuitu horretan sartzeko. Euskal rock mainstream-a entzutea besterik ez dago. Ez dago inolako autokritikarik". Punk kontzertuetara hurbiltzen denean, aspertu egiten dela baieztatu du gitarra jotzaileak. Ez duela inolako probokaziorik ikusten: "Gai delikatuetan sartzeak ematen dio punk izaera talde bati. Publikoak espero duena esatea ez da apurtzailea". Probokatzeko ahalmena badute behintzat Homonimoa diskoa osatzen dute hamahiru kantuek. Auto-ekoizpenaren bidea hautatu du Pecozzak, errazena eta azkarrena delako. Petruska Records zigiluko Aitor Perezekin grabatu dute, eta diskoak etxean egin dituzte. Artisau-lanaren arrazoia azaldu du Lander Bidaurrek: "Bandcampen doan entzun daiteke. Baina disko fisikoa ere atera nahi genuen, ilusioa egiten zigulako. Gainera, lagunek eskatu egiten digute". Taldekideei eskatzea da, hain zuzen ere, Homonimoa eskuratzeko modurik zuzenena. Urdanibia plazaren inguruko tabernetan ere aurki daiteke. Laster egin beharko dituzte disko gehiago, lehen sorta laster amaituko baita.

Eusko Jaurlaritzako bekak, 2015-2016 ikasturtea. Unibertsitateko ikasleak

Zer?
1. Unibertsitateko eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak. 2015-2016 ikasturtean.

2. Bikaintasun akademikoko bekak, etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko.

3. Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak, unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten baldin badituzte. 2015-2016 ikasturtea

Epea? Irailaren 30era arte.

Informazio gehiago:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus

Lehen Sorospenetako ikastaroak. Donostian eta Errenterian

Errenterian
Prezioa? Matrikulak 110 euro.

Noiz? Irailaren 7tik 25era.

Ordutegia? 19:00 etatik 21:00 etara.

Lekua? Errenteria. Koldo Mitxelena Institutua. Galtzaraborda, 4.

Izen emateak: deitu 943 46 46 22ra, edo kontsultatu web orria: www.dyagipuzkoa.com/eu/event/errenteria.

Donostian
Prezioa? Matrikulak 110 euro.

Noiz? Irailaren 9tik 26era

Ordutegia? Larunbatetan 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00.

Lekua? Donostia. DYAko Formazio eta Boluntariotza Gunean (Baratzategi kalea, 10 - Intxaurrondo auzoa)

Izen emateak: deitu 943 46 46 22ra edo web orria kontsultatu: www.dyagipuzkoa.com/eu/event/llss_larun

Faro Bekak

Zer? Bekak, atzerrian praktika profesionalak egin nahi dituzten unibertsitateko ikasleentzat. Tokiak: Europa, Estatu Batuak, Kanada, Asia eta Ozeania. Iraupena: 5 eta 6 hilabete artean.

Kontaktua: Hiritarrentzako Informazio Zentroa. Los Madrazo, 15. Madril 28014.
Telefonoa: 91 3277681

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2.behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Kontzertuak eta diskofesta 2015eko Hondarribiko Jaietan

Irailak 5: Grises (indie-popa) eta Zea Mays (rocka).
Irailak 6: Los chikos del maíz (rapa) eta Las Tea Party Dj´s..
Irailak 8: Diskofesta
Irailak 9: Marmoka (Hondarribido musika taldea) eta Gatillazo (punka)
Irailak 10: Gatibu (Benta zaharrean), Kalakan (Arma plazan)
Irailak 11: Los Secretos.

Irungo kiroldegiak

Aurreinskripzioak kiroldegietan 2015-2016ko 1.go eta 2. hiruhilekoak

Artaleku kiroldegia eta Azken Portu kiroldegia: Aerobic + Step, Gimnasia, Tonifikazioa, Cycling-a, Zumba,Yoga, Dantzak, Pilates...

Aurreinskripzioak: irailaren 2ra arte
-Internetez:
www.irun.org/irunkirol
- SAC/HAZen: sarrerako terminaletan (San Martzial kalea 2, 8:00etatik 22:00etara egunero)
- Harreran: kiroldegietan, aurreinskripzio-orria kutxatilan sartuz (orria "AURREINSKRIPZIOA-Orria" loturan jaitsi daiteke).

AIAKO HARRITIK ZERURA BEGIRA

Zer? Aranzadi Zientzia Elkarteko Astronomia saileko lagunen gidaritzapean bertara hurbildutakoek izarrak, sateliteak, planetak, ... ikusi, identifikatu eta euren ezaugarriak ezagutuko dituzte.

Non? Lapurriturriko informazio gunean (Erlaitz).

Noiz? Irailak 5

Ordutegia? 22:00-01:30

Prezioa? Doakoa

Izena emateko? 010/943505152

IRUNGO MEATZARITZA EZAGUTUZ

Zer? Felix Ugarte Elkartearen eskutik Askaingaina eta Meazuriko inguruak bisitatuko dira,

Noiz? Irailak 5

Non? Lapurriturriko informazio gunean (Erlaitz)

Ordutegia? 09:30-13:00 gutxi gorabehera.

Prezioa? Doakoa

Izena emateko? 010/943505152

EXPOGROW 2015

Zer? Kanabisaren beste edozein azoka baino harago doa Expogrow.

Goizetik gauera arte zuzeneko kontzertuei, grow standei, hitzaldiei, ikuskizunei eta beste jarduerei esker jaia ziurtatuta dago.

Jarduerak:

- Erakusketa
- Herri Kirolak
- Flame Off lehiaketa: beira putz-egileen lehiaketa: denbora mugatuan piezak sortu beharko dituzte.
- Kontzertuak: Third World, Flavia Coelho, Collectif 13, Fyahwoy, Acción Sanchez eta Zatu, Marina P & Stepart, LMK, Kulto Kultibo, Don Camilo, Scars, Dj Don Cornelius, Papa Style, Dj Victor Santana.
- Kalamuaren Nazioarteko IV Foro Soziala: Expogrow-ek Fundación Renovatiórekin batera Kalamuaren Nazioarteko IV Foro Soziala antolatzen du. Estatuko eta nazioarteko adituak gonbidatu ditu Foroak eztabaidara. Kalamuaren normalizazioa izango da eztabaidaren gaia.

Noiz? Irailak 11, 12 eta 13.

Non? FICOBAn

Informazio gehiago:

Tlfn: 601 090 084

info@expogrow.net

www.expogrow.net

Irailaren 1etik 13ra

Zer? Tadamun Elkarteak antolatutako Margolarien erakusketa.

Non? Laboral Kutxa (Colon Ibilbidea 13)

Prezioa? Doako sarrera

Irailaren 13ra arte

Zer? Jose María Castilloren Argazki zaharren erakusketa.

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa, Sarjia, 1, atzealdea

Ordutegia? Ostegunetik igandera arratsaldeko 19:00etatik aurrera

Prezioa? Doako sarrera

Irailak 12

Zer? Saxel Brass metal boskotea.

Non? Eskoleta Kalean

Ordua? 20:30ean.

Prezioa? Doako sarrera

HERRI JAKINTZA
euskaltegia

IKASI EUSKARA
BESTELA EZ GARA!

- Maila guztiak
- Hizkuntz eskakizunak
- HABE titulu ofizialak
- EGA | IVAP | IRALE
- Guraso taldeak

Matrikula zabalik
2015/16

Matrikula:
Irailaren **7tik 25era**
11:00etatik - 13:00etara
17:00etatik - 19:00etara

Irunon, zuk euskaraz!

HERRI JAKINTZA euskaltegia

HABE

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com